

# **HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAREN PRENTSA OHARRA**

## **SAN MAMES BARRIA SL SOZIJETATEAREN BEHIN-BETIKO FISKALIZAZIO TXOSTENA**

---

### **SARRERA**

1. Eusko Legebiltzarraren Ekonomia eta Ogasun Batzordeak HKEEri San Mames Barria SL sozietatearen gaineko fiskalizazio txostena egiteko eskatu zion, 2007-2014 aldia besarkatuko zuena.
2. HKEEek bere Lanerako Planean jaso zuen txosten hau eta 2016ko joan den otsailaren 25ean egindako Osoko bilkuran aho batez onartu zuen San Mames Barria SL sozietatearen gaineko fiskalizazio txostena.
3. 2015eko uztailaren 3an osatu zen HKEE berria, Eusko Legebiltzarrak kide guztiak hautatu ostean, Erakunde hau arautzen duen Legeak agintzen duen moduan.
4. Ordurako, aipatutako fiskalizazio txostena egiteko lanak jada abian zeuden eta lan horren egikaritzaren erantzukizuna Lehendakariatzako atalari atxikia zegoen.
5. 2015eko uztailaren 23an egindako HKEEren Osoko bilkuran, lehendakariak hala proposatuta, txosten hori egingo zuen atala aldatzeko erabakia hartu zen. Orduetik aitzina, eskuartean dugun txostenari jarraipena eman eta fiskalizatzeko egitekoa partaidetutako sozietateak bere gain dituen atalari agindu zitzaion.
6. Behin aipatutako erabakia hartu ostean, HKEEko lehendakaria fiskalizazio txosten honekin zerikusirik duen orotatik gorde da, bai alderdi materialei dagokienez, bai izapidean berak esku-hartzeari dagokionez ere.

### **FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK**

1. Sozietateari eta obra, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari ezargarria zaion legeria betetzen dela egiaztatu San Mamesko estadio berriaren eraikuntzan; horretarako, esleipenak eta espedienteen egikaritzeak aztertu dira gure lanaren amaiera datara arte, gogoan izanik administrazio publikoen esku dagoen kapital soziala gehiengoa dela 2012ko uztailetik aurrera.
2. 2014ko ekitaldiko Urteko Kontuak fiskalizatzea. Fundazioa urtero auditatzen da; honenbestez, gure lana auditoreen lan paperak berrikustera mugatu da eta hala behar izan denean, egoki irizitako proba osagarriak egin ditugu.

## IRITZIA

### LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRTITIA KONTRATAZIOA

1. Sozietateak obra nagusiaren kontratugileari publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez, obra eta hornidurako kontratu misto bat esleitu zion 479.058 euroren zenbatekoan; ordea, azken atal honek zenbateko osoaren gainean % 71 egiten zuen. SPKLTBaren 12. artikuluari jarraikiz, SARA kontratu modura esleitu behar zatekeen SPKLTBaren 15. artikulua araberera.
2. “Barrualdeko itxiturak eta akaberak” espedienteko 4 zenbakiko aldaketak 405.407 euroren garbiketa zerbitzu orokorrak barne hartzen ditu, obra modura kalifikatu ezin daitezkeenak, baizik eta zerbitzu kontratu modura. Zenbatekoa aintzat hartuta, kontratu bereizi modura lizitatu behar zatekeen kontratazio printzipioak gordez, eta DOUEn argitaratu.
3. - 2, 3, 4 eta 5 espedienteen eta 1 zenbakiko espedientearen lehenengo obra osagarriaren aldaketek, nork bere obra nagusiari dagokionez, esleipen prezioarekiko igoerak eragin dituzte eta SPKLTBaren 107. artikulua 2 eta 3d atalek finkatutako % 10eko muga gainditu dute. Muga horrekiko gaindikina guztira 9,5 milioi eurorena da.

EPAITEGI HONEN USTETAN, SOZIETATEAK, AURREKO PARAGRAFOETAN AIPATUTAKO LEGE HAUSTEAK ALDE BATERA, ZUZENTASUNEZ BETE DU 2007-TIK 2014-RA BITARTEKO EKITALDIETAN EKONOMIA-FINANTZAREN JARDUERA ARAUTZEN DUEN LEGE ARAUTEGIA.

### URTEKO KONTUEI BURUZKO IRTITIA

EPAITEGI HONEN IRTITZIRA, HONEKIN BATERAKO URTEKO KONTUEK ALDERDI ESANGURATSU GUZTIETAN 2014KO ABENDUAREN 31KO ONDAREAREN ETA FINANTZA EGOERAREN ISLA ZUZENA ERAKUSTEN DUTE; BAITA, DATA HORRETAN AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI DAGOZKION BERE ERAGIKETEN ETA ESKUDIRUZKO FLUXUEN EMAITZENA ERE, EZARGARRIA DEN FINANTZA INFORMAZIOAREN ARAU-ESPARRUAREN ARABERA ETA, ZEHAZKI, BERTAN JASOTAKO KONTULARITZAKO PRINTZPIO ETA IRIZPIDEEN ARABERA.

## IRIZPENAK ETA GARRANTZIZKO BESTE AUZI BATZUK

1. Sozietatea 2007ko martxoaren 6an eratu zen eta kide fundatzaileak, hein berean Athletic Club, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilbao Bizkaia Kutxa dira.
2. Bilboko Udala eta EJ akziodun bihurtu ziren, hurrenez hurren 2010eko maiatzaren 17ko eta 2010eko maiatzaren 20ko Akziodunen Batzar Nagusiaren erabaki bidez.
3. Garrantzitsua da azpimarratzea 2012ko uztailetik aurrera duela Sozietateak kontratazioko arau publikoak betetzeko obligazioa, indarreko legediaren arabera.
4. 2012ko maiatzaren 16an, Administrazio Kontseiluak beste Bazkideen Akordio bat onartu zuen, Finantza Plan bat barne hartzen zuena eta, behin zelaia eraikia zela, Sozietatearen kapitalean bazkideek izango zuten azken partaidetza finkatzen zuena; hona hemen xehetasunak:

• Athletic Club .....	% 23,58
• Bizkaiko Foru Aldundia .....	% 23,58
• Eusko Jaurlaritza .....	% 23,58
• Kartera 2 SL, (Kutxabank taldea).....	% 23,58
• Bilboko Udala.....	% 5,68
GUZTIRA	% 100

5. Egin diren kapital zabalkuntza guztiak diruzkoak izan dira, Athletic Clubek 2010eko ekainaren 30ean eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2012ko uztailearen 27an egindako lursailen ekarpenak salbuespen izanik, bakoitzak 16,8 milioi euroren zenbatekoan. Bestetara, Bilboko Udalak urbanizazio eta obregatikoko zerga eta tasak kapitalizatuko ditu.
6. San Mamesko zelaia eraikuntza hirigintzako jarduera zabalago baten baitan barne hartzen da, Bilboko Udalak San Mames futbol zelairako hirigintza berrikuntzari buruzko plan berezian onartutakoa, behin betiko 2007ko martxoan onartu zena. Plan honen barruan jasotzen dira Bilborako sarbide berriak eraikitzea, Euskal Herriko Unibertsitateko Teknologia Campuseko inbertsioak, Sabino Aranatik hirirako sarbidea eraistea, lehengo bide honek hartzen zituen lursailen hirigintzako berreskuratze-lana eta futbol zelaia bera.
7. Sozietateak ez du langilerik eta bere jarduera San Mamesko estadio berria eraikitzea izan da.
8. 2013ko irailaren 12an “Industriako errentamendu kontratua” gauzatu zen Sozietatearen eta Athletic Club taldearen artean 50 urteko aldirako eta gutxienez beste 50 urteko aldirako luzagarria; Athletic Cluben konturakoak izango dira errentan emandakoa zuzen erabiltzeko zaintza, konponketa eta mantentze lanen gastuak.

9. Adostutako errenta urteko 500.000 eurorena izan zen, urtero KPIaren arabera eguneratuko dena. Errenta berrikusiko da zelaia behin betiko jaso eta handik 10 urtetara; orduz geroztik berrikusketa bost urtean behin egingo da.
10. Errentamendu kontratuan jasotako alokairuaren urtekoa, hori zenbatetsiko zuen aldez aurreko azterlanik egin gabe onartu zen. Gerora, lehenengo mailako beste 11 futbol taldek ordaindutako alokairu prezioak aztertu ziren, urteko oroitidazkietan jaso dutenaren arabera, eta ikusi zen guztietan kopururik handiena 180.000 eurorena zela, Athletic Clubek ordainduko duena baina kopuru txikiagoa.
11. Errentamenduarekin Sozietateak Athletic Club-i instalazioen erabilera guztiak lagatzen dizkio eta Clubek konpromisoa hartzen du bazkide bakoitzari nor bere hitzarmenean jasotako erabilera jakinetarako espazioak lagatzeko.
12. Hiru administrazio publikoekin izenpetutako hitzarmenak emandako ordainen balorazioa barne hartu gabe gauzatu ziren eta gutxienez 50 urteko aldirako. 2014an enpresa aditu bati ordain horien balorazioa egiteko eskatu zitzaion eta merkatuko prezioetan, urteko 4,4 milioi eurorenak zirela balioetsi zuen.
13. Kartera 2 SLrekin izenpetutako hitzarmena Kartera 2 SLri eta Kutxabank-i 50 urtetarako irudi eskubideak lagatzean mamitzen da. Biak ala biak 4 urteko epearen ostean birnegoziatuko dira.
14. Sozietateak kontratu honen bitartez Athletic Clubi errentamendu-gai den haren gaineko erosketa-aukera eskubidea aitortzen dio eta aldeek unea iristen denean aukeraren prezioa fede onez negoziatzeko konpromisoa hartu dute, dena delako ibilgetuaren balio garbiari lotua egongo dena, zeina egun ditugun balioespenen arabera, 50 urteko aldiaren amaieran 66 milioi eurorena izango den.
15. Europako Batzordeak, hirugarrenek hala eskatuta, 2014an administrazio publikoei eragiketa honi buruzko informazioa eskatu zien; ordea, ez da inongo prozedurarik abiarazi eta ez du salaketa izaerarik, izan ere, hori formulatu duten pertsonen interesak ez baititu neurri horrek eragiten. Hau guztia Batzordeak berak 2015eko abuztuaren 31n parlamentuko erantzunean adierazi zuen moduan.
16. Aldez aurretik hainbatetan onartu ondoren, 2010eko abenduaren 10ean Sozietatearen Administrazio Batzordeak behin betiko onartu zuen 152,3 milioi euroren eraikuntza-aurrekontua, jada hirugarren batek balioztatu zuena, BEZa, udal lizentziak eta lursailen kostua barne hartu gabe.
17. 2015eko uztailaren 23an zelaiaren eraikuntza kostua, kitatzeko dauden kontu-sailak aintzat hartuta, 140,889 milioi eurorena zen, aurrekontuan jasotako 152,3 milioi euroen kopurua baino txikiagoa.
18. Inbertsioaren azken balioespena guztira 186,489 milioi eurorena da, era honetara banatua:

• Ordainketak guztira .....	140,89 milioi €
• Lurzorua .....	33,60 milioi €
• Udalaren lizentziak.....	12,00 milioi €